

NOLA AURRERATU ETORKIZUNARI – ESZENARIOAK ZER DIREN ETA NOLA ERAIKITZEN DIREN

EMAN IZENA



EGUNA ETA ORDUTEGIA	Osteguna, urriak 23. 9:30etatik 13:30etara
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Laida Bidea 203, Zamudio, Bizkaia. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.
IRAUPENA	4 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziako erakunde bazkideentzat soilik: • Ingurune aldaketei dagoeneko adi daudenentzat eta erabakiak hartzeko ingurunean zaintza-jarduerak sistematikoki egiten dituztenentzat. • Berrikuntza-jardura eta -proiektuen garapenean esperientzia dutenentzat. • Etorkizunari begiratu eta ikuspegi hori beren erabaki estrategikoetan nola txertatu jakin nahi dutenentzat. • Beren jardueran etorkizuneko agertokiak txertatzeko jakin-nahia edo behar zehatza dutenentzat. * Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

IKASKUNTZAREN HELBURUAK

- Etorkizuneko pentsamendua zer den eta erakunde berrikuntzan eta lehiakortasunean duen garrantzia ulertzea.
- Aurretik ezarritako zereginak zalantzan jartzea edo birplanteatzea
- Zaintzatik abiatuta, beste prospektiba-tresna batzuk erabiltzera aurrera egitea.
- Sofistikatuagoak diren prospektiba-tresna batzuei buruzko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.
- Etorkizuneko agertokiaren ariketak egiteko moduari buruzko ezagutza teoriko eta praktikoa eskuratzea, erakundeetan metodologia hori txertatzeko aukera emateko.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

1. Etorkizuneko agertokietarako sarrera: zer diren eta nola sortzen diren.

2. Nola erabiltzen dituzten erakundeek etorkizuneko agertokiak:

- Nazioartean erreferentziazkoak diren kasu batzuk.
- Nola komunikatu sortzen diren emaitzak berrikuntza-proiektuetan edo estrategian eragina izan dezaten.

3. Etorkizuneko agertokiei buruzko taldekako ariketa praktikoa.

NOREKIN



IBON ZUGASTI

Prospektikerreko
Managing zuzendaria


Enpresen Kudeaketan eta Administrazioan lizentziaduna eta Zuzendaritza Estrategikoan masterra Deustuko Unibertsitatean. 1999az gero plangintza estrategiko eta prospektiboari buruzko hainbat proiektu zuzendu ditu. Halaber, zenbait azterlan sektorial eta enpresa-plan estrategiko egiten parte hartu du (Telefónica, Repsol, Mondragon Corporación, Iberdrola, Guggenheim...) eta sektore publikoko proiektu prospektibo-estrategikoetan aritu da hainbat herrialdetan (Uruguai, Kolonbia, Kuba, Kanada, AEB...) eta EBn (Europako Batzordea...).



RODRIGO DAL BORG

Prospektiba
estrategikoaren arloko
aholkularia eta
ParalogosAI konpainiaren
sortzaileetako bat

PhD “Giza Eskubideak: Erronka Etikoak, Sozialak eta Politikoak” arloan, Deustuko Unibertsitatean. Prospektiba estrategikoan eta aurreratze-gobernantzan aditua da, bai eta eszenatokiak planifikatzeko orduan ere, Oxfordeko Unibertsitatean doktore-egonaldiaren ondoren. Beste batzuekin batera ParalogosAI konpainia sortu zuen, eta *data science*arekin prospektiba estrategikoaren metodologiak erabiltzen ditu. Hamar urte baino gehiago eman ditu prospektiba estrategikoa ikertzen eta praktikan jartzen, esparru akademikoan, sektore pribatuan eta sektore publikoan. Gaur egun politika publikoen eta prospektiba estrategikoan kontsultorea da Ekonomia Lankidetzaren eta Garpenerako Antolakundean (ELGA).



OIHANA BLANCO

Berrikuntza-politiketan
proiektu-arduraduna
Innobasque,
Berrikuntzaren Euskal
Agentzian

Ekonomian lizentziatua EHUn, Kanpo Merkataritzan eta Enpresen Nazioartekotzean masterra Bilboko Merkataritza Ganberan eta Masterra *Business Innovation* arloan Deusto Business Schoolen. Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzian, hainbat arlotako proiektuen arduraduna izan da, hala nola I+G+B-aren nazioartekotzean, ekonomia zirkularra eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako politiketan. Duela bost urtetik hona zaintza- eta prospektiba-proiektuen arduraduna da, eta arlo horretan trebatu da Manchesterreko Unibertsitatean.